IBAN

Unibertsitatea

"Ingelesak gora egingo du, oro har, unibertsitatean, baina horrek ez du zertan izan euskararen kaltetan

51 URTE, ANDOAIN

LANA DONOSTIAN

IBILBIDE PROFESIONALA

- Fakultate bateko irakaslea da eta jakintza arloren bateko zuzendaritza taldean dago.
- Ingeniaritza ikasketetan espezializatu da eta doktorea da.
- Euskararekin konprometituta dago eta arlo zientifiko eta teknologikoan euskararen aldeko lanean aktiboki jardun izan du, kongresuak antolatzen, IXA taldean, UEUrekin elkarlanean…
- Euskaraz lan egiten du ahal duen guztietan.

MOTIBAZIOAK

- Irakasle asko daude erretiratzeko atarian, eta hori aukera modura ikusten du.

KEZKAK

- Euskararen kalitatearekin kezkatuta dago, eta gazteek hobeto idazteko ardura hartzea gustatuko litzaioke.
- Euskaraz ikasten duten ikasleak gero lan munduan erdaraz lan egitera pasatzen dira.
- Unibertsitatean euskara garatu ahal izateko enpresen eskaera falta dela sumatzen du.

NARRATIBAK

- Euskara jakitea, **talentua**ren beste faktore bat da, helburu batzuei erantzuteko baliagarria dena.
- Ikasleek **ikuspegi kritikoa** izateko bokazioa galdu da unibertsitatean.
- **Terminologia teknikoa** garatu da, baina gehiago garatu beharra dago: publikazioak, tesiak, Gradu Amaierako Proiektuak…
- Unibertsitate eta enpresen arteko **lankidetzaren eraginkortasuna** txikia da euskara kontuetan.
- Euskararen garapena ez da etorriko teknologien garapenetik berez, baizik eta teknologia lantzen diharduten **pertsonen arteko harremanak** euskalduntzetik.
- **Hizkuntza interakzioa** gero eta txikiagoa izango da teknologietan, baina horrek ez du zertan euskararen kalterako izan.
- **Ingelesaren nagusitasuna** agerikoa da.
- **Euskararen kalitatea** zaindu behar da, ikasle nahiz irakasleena, eta hor unibertsitateak badu zereginik eta zer hobeturik.
- **Administrazioak laguntza** ematen jarraitu beharko luke: barne erabilerarako eskuliburuak sortzeko eta sustatzeko, ikerlari eta ikasle euskaldunek gaztelaniara edo ingelesera jo beharrik izan ez dezaten.
- Enpresaren marka **euskararekin lotzeak dakartzan onurak** sakon aztertu beharko lituzkete enpresek, gizarte hobe baterako egiten duten ekarpenaren ikuspuntutik.
- Gauza ofiziosoetarako euskara erabiltzen da zenbait bezerorekin, baina **bilera formaletan eta arlo idatzian euskara gutxi** erabiltzen da.